


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2014ko apirila

Euskal AEko industri jarduera %2,6 gehitu zen 2014ko apirilean

Euskal AEko industri produkzioaren indizea, aurreko hilarekin alderatuta %0,3 gehitu zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2014ko apirilean %2,6 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeenetan, 2013ko hil beraren aldean. Urtaoen eragina zuzenduta, %0,3 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2014ko martxoarekin alderatuta.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua



2014ko apirileko indizearen bilakaera 2013koaren aldean positiboa da industri talde handi guztietan, Kontsumo-ondasunetan izan ezik, %3,0 jaitsi dira guztira; Kontsumo-ondasun iraunkorrek (%-15,2) izandako jaitsieragatik, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %2,1 gehitu baitziren. Bitarteko ondasunak %3,4 gehitu ziren, Ekipo-ondasunak %2,8, Energia %2,1.

2014ko apirileko hil arteko aldakuntza, 2014ko martxoaren aldean, ezberdina izan da industri talde handietan. Ekipo ondasunak %1,3 jaitsi dira, Bitarteko ondasunak %1,1. Energia %1,2 gehitu zen, eta Kontsumoko ondasunak, guztira, %2,9; Kontsumo iraunkorreko ondasunak %3,6 hazi ziren eta ez-iraunkorrekoak %2,6.

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak 2014ko apirilean, urte artean: Garraio materiala %6,3, Makineria eta ekipoa %5,8.

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko aldakuntza-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	0,8
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	0,7
09 - Kautxua eta plastikoak	2,5
13 - Makineria eta tresneria	5,8
14 - Garraio-materiala	6,3
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	2,8
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-8,2
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-1,0

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Material eta ekipo elektrikoa sektorean urte arteko %8,2ko jaitsiera dago; Zura, paper eta arte grafikoetan, %1,0koa.

Apirileko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Araban, %8,4, eta Gipuzkoan, %3,7; Bizkaian %1,5 jaitsi da. Hil artean, 2014ko martxoaren aldean: Bizkaian %-1,1, Gipuzkoan %+1,0; Araban %+1,5.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Aldakuntza-tasak. 2014 apirila. Behin-behineko datuak

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Api2014/Api2013	M(Api2014)/M(Api2013)*	Api2014/Mar2014	Mar2014/Ots2014
Indize orokorra				
Euskal AE	2,6	0,4	0,3	-0,6
Araba/Álava	8,4	3,2	1,5	-0,7
Bizkaia	-1,5	-2,4	-1,1	1,6
Gipuzkoa	3,7	1,6	1,0	-2,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-3,0	-5,3	2,9	-2,6
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-15,2	-19,2	3,6	-8,0
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	2,1	0,5	2,6	-0,6
Ekipo-ondasunak	2,8	1,5	-1,3	0,8
Bitarteko ondasunak	3,4	3,1	-1,1	-0,5
Energia	2,1	-5,2	1,2	1,5

(*) 2014ko urtarrietik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2013ko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua